

BALIATU

2. DBH

ARTE ESZENIKOEN MAGIA BIZI



2. DBH. 13<16 urte, dagoeneko antzerkia bizi izan dute, badakite antzerkiak sormen gune asko dituela eta zein gunetan sentitzen diren gusturago. Era berean, gaztetasunak duen asaldura eta ohiturak aldatzeko aldarrikapen grina gainean dute. Oraingoan, **Baliatu Egitarrak** ikuskizun bat sortzen du, guztien artean nork bere lekua bilatzen du, talde irudimena biderkatuz eta ikastetxeko komunitatearen eskutik helduta; erronka itzela. Antzezlanak aurkezterakoan, bi urtez bizi izandako prozesua loratzen da; jasotzen dituzten txaloek, haien barrenak astintzen dituzte eta talde katarsiak lehertzen du.

Mamia:

Ikastetxeko kolaboratzaileekin (ikastetxeak mahi gaineratzen dituen laguntzaileak) eta ikasleekin zer gai bultzatzea komeni den adostu ondoren hasten da prozesua. Ikasle eta bideratzailearen arteko harremana, zuzendari eta artistaren artekoa bilakatzen da, zuzendariak era profesional baten jokatzeko du eta artistek eta kolaboratzaileek zintotasunez erantzuten dute haien ardurekin. Adostutako gaia kontuan izanik, orri zuri batean hasten da sormen lana, ikasleei “brainstorming” -a bitartez suspertzen dituzten proposamenak jaso eta ikuskizunaren eskema bat osatzen da. Bideratzaileak eta kolaboratzaileak, gainontzeko ikas orduetan aurreratu daitezkeen lanak eta prozesuaren denborak kontuan hartuta, kronograma bat diseinatzen dute eta

ibilbidea martxan jartzen da. Zuzendaria giro aproposa egotean oinarrituz, proposamen eta lan banaketa txukunak bideratuko ditu eta artista guztiek gaizki egiteko baimena izango dute, ibilbidea emozioz josia dago eta amaierako katarsia irabazita.

Baliabideak eta Eskakizunak:

- Taldeak ez dauka zergatik talde naturala (nor bere ikasgelarekin) izan behar. Taldeak gaika edota ikastetxearen irizpideen arabera sortu daitezke.
- Taldearen tutorea edota irakasle kolaboratzaile bat egon behar da gertatzen denaren ikusle, lekuko eta babesle giza.
- Ikastetxearen arduran geratzen da, antzezlan aurrera eramateko ikasleen ikastorduak erabiltzea. Jakina da sormen prozesuak behar dituen lan hauek, ikasleen kurrikulum ikasgaiekin bat egiten dutela.
- Eszenatokia edota oholtza duen gela baten entseatzek bere garrantzia du, artistak askoz babestuago sentitzen baitira.

Onurak:

- Lan-taldea sendotu. Guztien parte hartzea beharrezkoa da, nork bere lekua zein den bilatzen du eta bakoitzak sortzen duenaren eragina nabarmentzen da, elkar babestuz proposamen egokiak hautatzen ikasten dute.
- Irudimena katalizatu (irudimenean suertatutakoa, oholtzara iristeko prozesua). Arte eszenikoetan “irudi” bat aurkezteko makina bat era daude, gaztetxoek irudimena bor-bor landuz, eskua artean daukaten infraestruktura eta logistika kontuan izanda, katalizatze era praktikoak erabiltzen ohitzen dira.
- Enpatia, pertseberantzia eta erresilientzia. Lan-taldeak, perfektzioaren bilatze lanean, prozesu osoan zehar behin eta berriro horma desberdinekin egiten du topo. Hori gainditzeko bakoitzaren enpatia eta guztion erresilientzia era bortitzean bizi dute.
- Komunikazio garbia. Prozesua aurrera doan heinean, erritmoa, giroa eta zereginak aldatzen doaz eta lan-talde guztiak izan behar du horren berri. Komunikazioak ezin du etenik izan, alde guztietarantz izan behar da eta komunikatzeko era orok izango dute haien lekua. Guztion ongi izatearen giltza komunikazioa bait da.



Antolaketa:

- 20 < 25 orduko prozesua da.
- Bideratzailea 15 orduz egongo da ikasleekin.
- Behar diren beste orduak, Apropoxen bideratzaileak antolatu arren, gainontzeko ikastorduetan egitekoa gauzatzea, ikastetxeko kolaboratzaileen esku geratzen da.
- Saio bakoitzaren luzapena eta egutegia ikastetxeko zuzendaritzaz adosten da.
- Prozesuaren jarraipena, ikastetxeko kolaboratzaileekin adosten da.

Egitarauaren bermatzea:

- Artisten lana kaleratzeak bermatzen du egindako lana eta taldearen babesak, kohesioak eta maitasunak irabazten du.
- Ikastetxeko kolaboratzaileekin egindako balorazio batzar baten bueltan, ikasleengandik jasotako onurak, zailtasunak eta proposamenak gure ekarpenei gehituz **Baliatu Egitaraia** aberastasuna bermatzen dugu.

Materiala:

- Irudimenetik ekarritakoa katalizatzeko egin behar diren esperimentuetarako, behar den materiala, Apropoxek duenarekin laguntzen du. Hortik aurrera, ikastetxearen komunitateak lagun dezake.
- Aurkezpena Antzoki edota areto apropos baten izan ez gero, ez dago arazorik. Kontrako kasuan, ikuskizunaren diseinuaren arabera behar izango den materiala, ikastetxearen komunitateak eta Apropoxek neurri berdinean laguntzen dute.

- Ala nahi izan ez gero, aurkezpena grabatzea ikastetxearen komunitatearen ardura da.

Zuen ikastetxean, hemen azaltzen diren ikasgaiak sendotu beharra sentitzen baduzue, jo gugana. Zuen zalantza, gure jakin-mina da, konpromiso gabe, oraindik guztion artean eragin behar zientzia bati buruz hitz egiten ari gara.